

San Carloseko merkatua
eta autobus geltokia

San Carlos
Rio San Juan
Nikaragua





Eskerrak bihotzez, lehen egunetik izandako laguntza eta pazientzia ikaragarriagatik,

Alex Mitxelena eta Enkarni Gomezi,
Gurasoei eta nere ahizpatxuari
Ingartzi Etxeandia eta Josu Vegari



San Carloseko merkatua eta autobus geltokia

- 00** Aurkibidea
- 01** Kokapena
- 02** Klima eta ingurunearen ezaugarri naturalak
- 03** Nikaraguako eta Rio San Juan departamentuko komunikazio azpiegiturak
- 04** Nikaraguako kanala
- 05** San Carloseko historia
- 06** Hiriaren komunikazioa
- 07** Hiriaren garapena
- 08** Hiriaren zerbitzuak
- 09** Hiriko gizartea
- 10** Merkatu eta autobus geltokian gaur egun dauden eraikinak, zerbitzuak eta dendak
- 11** Azalera totalak
- 12** Merkatuaren eta autobus geltokiaren arteko erlazioa
- 13** Proiektuaren helburuak
- 14** Erantsi nahiriko zerbitzuak
- 15** Proiektuaren estrategiak
- 16** Zirkulazioa
- 17** Espazio publikoen sorrera
- 18** Inguruko eraikinekiko erlazioan hobekuntza
- 19** Erabilera ezberdineko zerbitzuen kokapena
- 20** Autobus geltokiaren programa
- 21** Haurtzaindegi eta formazio zentroaren programa
- 22** Merkatuaren programa
- 23** Birkolokatutako eraikinen programa
- 24** Banbuaren alde positibo eta negatiboak
- 25** Banbuaren erabilera
- 26** Materialaren aukeraketa
- 27** Egitura



SAN CARLOS

Rio San Juan Nicaragua



Rio San Juan departamentua **Nikaraguaren hegoaldean** dago eta bost hirigunetan banatua dago. Morrito, El almendro, San Miguelito, San Carlos, El castillo eta San Juan de Nicaragua. Horiek guztien artean hiriburua San Carlos da.

Departamentuak **1.500 km²** hartzen ditu, Solentiname artxipelagoa eta Los Guatuzos basa-bizitzaren babeslekuarekin batera kontatuz.




Costa Ricarekin herrialdeak duen **mugatik oso gertu** eta Managuitik 290km hego-ekialdera dago.

Departamentuko hiriburua denez, biztanleria kontzentrazio handiena bertan dago eta **40000 biztanle** inguru dituela kalkulatu da. Hala ere, dentsitatea baxua da, bai hirian baita departamentu osoan ere. Gehenez ere 25per/mi-ko.

Inguruko osasun zentro eta administrazio gune garrantzitsuenak bertan biltzen dira. Eta departamentuko edozein herritara joateko bertatik pasa beharra dago.

San Juan ibaiaz eta Cocivilca lakuaz inguratua dago, lur eta uretako ekosistema paregabeen artean. Gune horien artean ezagunenetakoa Los Guatuzos litzateke, hezegune hau bitzta basatiaren babesgune da eta 1997tik gizon-emakumeen ondare.





KLIMA DESBERDINAK

-  **GUNE PAZIFIKOA**
Klima tropikal lehorra
prezipitazioak 6 hilabetez
-  **GUNE ZENTRALA**
Mendialdeko klima
prezipitazioak 7-8 hilabetez
-  **KARIBE KOSTA**
Klima tropikal hezea
prezipitazioak 8-10 hilabetez

Azarotik maiatzera garai lehorra da eta gainontzekoa hezea. Orokorrean hezetasun oso altua du San Carlosek.

Martxoa eta maiatza bitartean da garairik beroena, batz besteko 34°Cekin, eta freskoena ekaina eta urtarrila bitartean, 23-30 °Cekin, beraz, nahiko egonkorra dela esan daiteke.


LEHORTE ARRISKUA



-  **OSO HANDIA**
-  **HANDIA**
-  **ERTAINA**
-  **TXIKIA**

San Carlosen lehorte eta sute arriskuak oraingoz nahiko baxuak dira, baina arriskuaren gorakada azken hamar urteetan oso azkar igo da.



Gainera azken hamarkadetako deforestazioak arazoa hareagotu du. Beraz kontuan edukitzekoa da.

ERRESERBA NATURALAK

-  Garatzen ari diren erreserba naturalak
- 1 Rio San Juaneko biosfera
- 2 Indio Maiz
- 3 Los guatuzos



IBAI NAGUSIAK

-  Ibai nagusienak
-  San Juan ibaia

San Juan ibaia da San Carlosetik pasatzen dena eta probintzia osoa zeharkatzen duena. Caribe itsasotik Cocivilca lakuraino doa.

338 m³/s-rainoko emaria du eta guztira 35000km² ditu.

Aldi berean ibai hori Costa Ricarekin muga naturala da eta kominikabide garrantzitsua.

NIKARAGUA

- Errepide nagusiak
- Asfaltatu gabeko bide nagusiak
- Aeroportuak
- Portuak



RIO SAN JUAN DEPARTAMENTUA

- San Juan ibaia
 - Errekak eta ubideak
 - Errepide nagusia asfaltatuta
 - Asfaltatu gabe bide bigarrenkoak
 - Herri nagusiak
- 1 Morrito
 - 2 San Miguelito
 - 3 San Carlos
 - 4 El Castillo
 - 5 San Juan de Nicaragua




Herrialdealdeko hiri garrantzitsuenak goiko irudian agertzen dira eta ia guztiak asfaltatutako errepideen bitartez lotuta daude, **lur bidezko komunikazioa** eroso da hirien artean. Behin hortik, hiri txikiagoetara joateko herrialdearen ipar eta mendebaldean batez ere, errepide bigarrenkoak daude, asfaltatu gabeak baino maiz adokintuak.

Aeroportuei dagokienez, internazionala den bakarra Managuakoa da eta gainontze-koak nazionalak eta ruralak.

Nikaraguara beste sarrera garrantzitsu bat eta barne komunikaziorako guztiz premiazkoa **ur bidezko komunikazioa** da. Portuek funtzio horretan laguntzen dute.

San Juan departamentuak, 2010etik **errepide asfaltatua du Managua aldera**. Juigalparaino doa, lakuarekiko paraleloan eta Juigalpatik Managuaraino iristeko bidea da. Gutxi gora behera autoz 4 ordu t'erdi edo 5 orduan egin daitekeen bidaia da eta horren bertakoen **komunikazioa erraztu** du. Lehen bide hori egiteak denbora bikoitza zeraman gutxienez.

Horrez gain, San Carlos hiriburutik inguruko herrietara joateko bide ia guztiak **lur zalduzkoak** dira. Hori bertako klima hezearekin nahastuta **arazo** izaten da maiz eta koneksioek denbora luzea eramatea dakar.



KANALA NIGARAGUA HEGOALDEAREN SUNTSITZAILE

Historikoki Nikaragua **Pazifikoaren eta Atlantikoaren arteko lotura** egiteko bide moduan baloratua izan da maiz. San Juan ibaia Caribe itsasotik Cocibolca lakuraino baitoa, eta ondoren lakutik Pazifikorako bidea ez baita luzeegia, 25km gutxi gora behera. Baina **lehenengo bidea Panamatik zehaztu** zen.

Hala ere, 2014ko abenduaren 22an, Daniel Ortega Nikaraguako presidentek **Hong Kong Nicaragua Development (HKND)** enpresari eman zion ozeanoarteko bidea eraikitzeako kontzesioa, 50 urterako.

Komertzioaren bidea errazteko modu bat izan daitekeela iruditzen zaie eta Nikaragua gurutzatzeko modu ezberdin asko proiektatu dituzte, goiko irudian ikus daitekeen bezala. Aukera guztiak Briton hasten dira, Pazifikoan eta Cocibolca lakuraino doaz. Behin bertan bi aukera nagusi daude, San Carlosetik tira edo El almendro aldetik. Bertatik ikus daiteken bezala, Cayman Rockera edo isla del Venadora iritsi daiteke. Baita San Juan de Nicaraguara ere, San Juan ibaiarekin, ruta historikoena, edota Punta Gordara.

Edozein aukera aurrera eramanda ere, bertako erreserba naturalak gurutzatu beharko lirateke. Bideak, ibaiaren erroak erabili edota lehorretik pasata ere, orain arte ia ikutu gabe mantendu diren **paraje naturalak suntsitzea ekarriko luke**, Nikaraguak duen natura horren preziatu hori sakrifikatuz.


Argi dago ondorio naturalak oso gogorrak liratekeela, baina hori konpentsatzeko **herrialdearen garapena eta ekonomiaren** ustezko **gorakada** hipotetikoa erabiltzen dituzte. Iritzi hori dutenek, lan postu sorrera eta Nikaragua internazionalki mapa kokatzeko modu bat dela diote, komertzio internazionalen, garrantzizko postua lortuz.

Baina badira planteamentu hori hain erraz sinetsi ezin dutenak ere, eta beste zenbait egoeratan gertatzen den moduan, **irabaziak eta onurak, kanpo herrialdeen eskutan** geratuko liratekeela iruditzen zaie, bertako gizartearen egoera dagoen moduan mantendu edota oraindik gehiago okertuz.

Beste puntu bat litzateke, herrialdeak garatzerako momentuan eramango duen bidea zein izango den guztiz kondizionatuko duela, izan ere, behin mota honetako industria edota zerbitzuak sarturik, herrialdeak **modu jasangarriago batean garatzeko** izan ditzakeen **aukerak asko mugatuko** lirateke.

Wang inbertitzaileak Nikaraguako proiektuarekin zerikusirik ez zuten finantza-atzerapenak izan zituen, bere ondare garbiaren %80 galdu zuenean 2015. eta 2016. urteetako burtsa-krisi txinatarrean. 2018ko otsailak 21ean **proiektua kantzelatatu** zela publikatu zen.

Orain herritarren zenbait mugimentuk proiektuak egindako **lur kontzesioa indargabetzea** eskatzen du, botere handiak ematen dizkio Wang-i eta lur haientzat mehatxua da. Nikaraguako hegoaldean, Cocibolca laku handiko kostaldean herrialde honetako lur aberatseneak daude, eta halako makroproiektuen aurrean babestu nahi dituzte. Berrero ere horrelako zerbitu martxan jartzearen beldurrak jarraitzen baitu.



1527.urtean Nueva Jaen hiri espainiarra sortu zen gaur egun San Carloseko hiria dagoen tokian. Izan ere, lurralde haietan espainiarrek zuten interesa handia zen. Bertan baitzegoen Lakuko hustubidea eta San Juan ibaieko isurbide naturala. Garaiko espainiar kronistek ziotenez, San Juan ibaira iristean bertan hainbat tribu indigena aurkitu zituzten. Bi talde nabarmentzen ziren: **Nikaro edo Nikiranoak**, ibaiaren ahoan bizi zirenak, eta **Votoak**, ibaiaren inguruan bizi zirenak. XVI.mendearen erdialdean espainiarrek ia guztiz sarraskitu zituzten bertako biztanleak. Soilik Votoetako batzuk lortu zuten San Juan ibaieko hegoalderantz ihes egitea.

Ibaiertzetako igarobidea babesteko, ertzetan gotorlekuak eraiki zituzten. 12 gotorleku izan ziren San Jun osoan zehar. Konkrituki **1666an "La Inmaculada concepcione**ko **gatzelua"** sortu zen. 1675.urterarte egon zen gotorlekurik handiena. **Espainia eta Ingalaterra arteko gerra-urteetan**, ingelesak ibaia hartzen saiatu ziren. Soldadu-burua hil zenean haren alaba **Rafaela Herrera** heroiak zuzendu zuen defentsa, 19 urte besterik ez zituela, inbaditzaileen aurka egin zuen eta etsaiek ezin izan zuten gotorlekua hartu. Geroago **1670. urtean piratek arpilatu** zuten.

1780an Horacio Nelson militar ingelesaren armadak, espainiarren aurkako gerratean, Iparraldeko **San Juan hartzea lortu** zuen eta ondoren 18 egun iraun zituen batallaren ondorioz "La Inmaculada concepcione"ko gatzelua hartu zuten. Hala ere, oso plangintza txarra eta horniduren galera zela eta, britainiarrak laster hasi ziren kanoietarako munizioa eta beren gizonentzako janari-errazioak urritzen. Euri tropikalen ondoren, gizonak gaixotu eta hiltzen hasi ziren. Inbaditzaile ingelesek bi hilabete inguru eman zituzten ibaian gora egiteko, gatzelua eskuratzeko eta gainerako prestaketak egiteko. Horri esker, Espainiako agintariak armetan jarri eta **Nikaraguako lakuaren ahoa gotortzea lortu** zuten. Azkenean **1780an** ingelesak erretiratu egin ziren.

Gertaera historiko hau eta beste asko ikusi ondoren, **Panamako Ubidea** eraiki ondoren, San Juan ibaian interesa galtzen hasi zen jendea, eta alde egin zuten. **Somoza familiaren diktaduraren urteetan**, San Carlos bi gizarte-klasetan banatzen zen, pertsona gehienak pobreak ziren, baina herriaren zati txiki batek maila ekonomiko handia zuen. Besteak beste, Los Noguera, Centeno, Pilarte eta Urcon familiak Somozatarren elite txikia osatzen zuten.

1979ko Iraultza Sandinista, matxinatuek San Karlosen base militarra hartu zuten eta Costa Ricatik oihanera iritsi ziren. Hala ere, beste eraso batzuek herrialdeko beste leku batzuetan arrakasta bera izan ez zutenean, atzera egin behar izan zuten. Hau izan zen iraultzako lehen garaipen militar sandinista. Iraultzaren ondoren, hiriko base militarrek gerrako matxinatuei aurre egiteko balio izan zuen laurogeiko hamarkadan.



Airez:

Augusto C. Sandino Nazioarteko Aireportutik (Managua), hiriko konpainia batetik **hegaldiak jasotzen ditu** ostegun eta igandeetan, baina pandemia egoerak geldituarazi ditu. Hegaldira oso motza da, ordu bete ingurukoa, eta prezioari dagokionez ez dago hiritar guztien esku.

Urez:

Garai batean, **Granadara** joaten zen ontzi bat zegoen, ibilbidea Ometepetik pasatzen zen eta astean bitan zegoen. Konexioa oso erabilgarria zen, 12 orduko bidaia zen gutxi gora behera. Komertziorako erabiltzen zen, Granadara eta bertatik Managuara bidea nahiko erraz egin zitekeelako, baina baita aisialdirako edota hiriburuko zerbitzuak behar zirenerako. Baina **lehorteek lakuaren maila jeitsi** zuten eta ontziaren tamaina zela eta 2015etik iada ezin du lakuan nabegatu.


Geroztik ontzi txikiekin bakarrik ibili daiteke Cocivolca lakuan, beraz askoz mugatuago geratzen da. Pertsona zein merkantzien mugimendua ontzi partikularrek eskeintzen dituzten zerbitzuetara gertatu da. Horietako askok lakurantz beharrean **San Juan ibaian zehar** egiten dituzte beraien **ibilbideak**, modu horretan herri askoren komunikazioa ematen da, esaterako, El Castillo, Sabalo eta la esperanza, San Juan del Norterraino.

Lantxa bitartez Costa Ricara ere pasa daiteke eta 45minutu inguruko bidaia da.

Lurrez:

San Carlosetik hiriburura doan **errepidea 2010an asfaltatu zen** eta horren asko erraztu zuen komunikazioa. 10 orduko bidea izatetik 5 orduko bidea izatera pasa zen. San Carloserako errepidea Lobagoko lotunean hasten da, Juigalparaino doa eta bertatik Managuara. Errepide bitartez egiten diren beste ruta nagusi batzuk Granada, Chinandega, Leon, Matagalpa, Jinotepe dira, **autobusek** ruta horien regularki egiten dituzte.

Azken urteetan errepide horri esker lurreko herrialdeko beste hiriekin **komunikazioa hazi** da, baina ordurarte egia da Costarekin zuen lotura oso ohikoa zela eta gaur egun bide garrantzitsu izaten jarraitzen du. Microbusak daude San Carlosetik Las Tablillas-era (muga), eta bertatik Costa Rica barnerantz autobus edo taxiak daude. Mugaraino orduerdi da eta gero hiribururarte autobusen beste ordu t'erdi inguru.



Hiria **60ko hamarkadatik aurrera** hazi zen indartsu. **Costa Ricarekin** duen mugatik horren gertu egoteak **influentziatu** du bertako bizitza, Managuarekin lotzen zuen errepidea egin aurretik ur bidezko komunikazioa indartsua zelako, eta **Costa Ricak komertzio eta lanpostu bide on** bat eskeintzen zuelako, Nikaraguan jasaten zuen egoeraren aurrean. Kafe plantazioetara edota etxeetan zebitzazera joaten ziren asko. Gainera muga erdi ezkutuan pasatzea erraza zen ibaiaren bitartez.


Hiriaren jaiotze data **1526. urtean** izan zen eta momentu hartan Nueva Jaén izena jarri zien baina abandonatua izan zen eta **1666an birsortu** zen San Carlos izenarekin. 60ko hamarkadatik hona hazi da batez ere.

Eraikitako lurraren gehiengoak bizitoki erabilera du, herria abeltzaintzarako finkek inguratzen dute, baita humeral eta basoek ere. Horrez gain lurreratze pista txiki bat dago 1970 ean egina, herrian geroz eta barnerago geratzen ari dena, nahiz eta bere momentuan kanpoan geratzen zen. **Arrantzak** garrantzia izan du betidanik noski, eta **abeltzaintza eta nekazaritza ohikoak** dira. Bertan biltzen joan ziren zerbitzuekin, jendea hirira gerturatu da. Modu horretan hiriaren alde zaharrena denean daude gaur egungo zerbitzu gehienak.

Luzetara hazi den herria da. Errepide baten ertzean hazteko dagoen joera eta lurren izakera pribatua dela eta, modu berean hazten jarraituko dela uste da. Uneren batean, San Carlos alboan duen **Laurel Galanekin bateratuta** geratuko da. Eraikiriko eraikin erresidentzial asko ez daude legaldi eraikiak, partzelazioaren kontrola duela urte gutxirarte ere ez zen martxan jarri. Horrek zenbait arazo urbanistiko ekarri ditu denborarekin.

Gunean:

%60 etxebizitza, %20-25 errepideak, %10-15 ekipamentuak, %5-10 komertzioa



- | | |
|---|--|
| 1 Hilerria | Gune erresidentzialak |
| 2 Gotorlekua | Karreterak |
| 3 Ikastetxea | Zingira gunek |
| 4 Kiroldegia | Ibaia eta lakua |
| 5 Behatokia | Basoa |
| 6 Malekoia | |
| 7 Gasolindegia | |
| 8 Portua | |
| 9 Autobus geltokia | |
| 10 Merkatua | |

Hiriak departamentuko osoko zerbitzu asko ditu alde zaharrean bilduta, horrek biztalen egunerokotasunaren zati handi bat bertan garatzea dakar. Horri esker gune oso bizi bat lortzen da, potentzial askokoa. Inguru osoa oinez erraz egiten da denbora gutxian, ordu laurden inguruan, nahiz eta maldatsua den erdirantz gerturatzean. Kostaldean biltzea komunikazioagatik dela argi dago eta klima beroa ere eramangarriago egiten da.





Gizarte **indartsua** da San Carloskoa. Bizitza gogorra izan dute azken belaunaldiek, baina beti aurrera jarraitu dute indartsu, belaunaldi berrie beraien jakintza transmitituz.

Komunitate sentsazio handia duen gizartea da, zaharrenen iritzia oso kontuan izaten da eta txikienak modu oso irekian hazten dira, familiaren mugak zabalduz eta auzokoekin bizitza eginez.

Gizarte oso **gaztea** da, %43ak 15 urte baina gutxiago ditu eta bizi-itxaropena 72 urtekoa da. Azken belaunaldiek, aldaketa oso sakonak ikusi behar izan dituzte internazionalki eta globalizazioak ere eragin die. **Bizitza estiloa aldatu** bada ere, egunean eguneko sakrifizioak hortxe jarraitzen du, eta aurrera jarraitu eta aldaketak lortzeko gogor ari dira lanean.

Familia handiak dira orokorrean, emakumeen indarra eta esfortzuarekin aurrera atera direnak askotan. Familia lotura urruna bada ere, oso **gertuko harremana** izaten dute, eta lotura horrek elkarren artean ikaragarri laguntzea dakar.

Orainarte Nikaraguan emakumeek, etxeak dakarren guztia eraman dute beregain, seme alabak, adineko gurasoak, etxea eta guztiak aurrera ateratzeko erantzukizun ekonomikoa. Guztia inongo errekonozimendurik gabe eta **gizarte antolaketa matxista** baten zapalkuntza jasoz. Emakume indartsuak dira, langileak eta ausartak, baina duten lan karga dela eta, ikasketak gazterik uzten dituzte maiz, bizitza pertsonal zein profesionalean aurrera egitea zailtzen diena. **Egoera pixkanaka aurrera** doa eta badatoz aldaketak, baina asko dago egiteko oraindik.

Hiriaren komunikazioak aldatzeak, zein ekonomia komunikazioak aldatzeak, asko eta asko merkataritzara dedikatzea ekarri du. Horregatik gehien garatzen ari diren puntuen artean **autobus geltokia eta merkatua** dira.

1 Gune nagusia: altzairuzko egitura zertxekin, estalkia txapa ondulatua. Hormigoizko blokeekin egindako eraikina atzealdean, hiru negoziorentzat, estalkia txapa ondulatua.

- Itxarongunea
- Lau negozio finko: ferreteria bat, etxetresna salmenta, agropulperia bat (nekazaritza produktuak), eta pulperia bat (ultramarinos).
- Hiru postutxo mugikor: mugikorren piezak, iada prestatutako jaki salmenta eta moda konplementuak.

2 Altzairuzko zertxekin egindako eraikina, estalkia txapa ondulatua, barne banaketak, egurrez.

- 8 jatetxerekin, bakoitzak aurrean bere terraza du 16-24 bezerorentzat.

3 Solairu bakarra, hormigoizko blokez egina eta ondulinezko estalkia.

- Tiket salmenta
- Informazio gunea

4 Solairu bakarra, hormigoizko blokez egina eta ondulinezko estalkia.

- bi arropa/zapata denda
- telefonia konpania baten denda
- paper-denda bat

5 Solairu bakarra, hormigoizko blokez egina eta ondulinezko estalkia.

- Motorrak konpontzen dituen taller bat.

6 Bi solairu, hormigoizko blokez egina eta ondulinezko estalkia

- behe solairua arropa-denda da eta goi solairua etxebizitza

7 Bi solairu, hormigoizko blokez egina eta ondulinezko estalkia

- behe solairua zapata-denda da eta goi solairua etxebizitza

8 Bi solairu, hormigoizko blokez egina eta ondulinezko estalkia

- behe solairua ile-apaindegi bat da eta goian etxebizitza

9 Solairu bakarra, hormigoizko blokez egina eta ondulinezko estalkia, itxiturak egurrezkoak.

- 8 negozio txiki: pulperia bat, informatika produktu denda, ...

10 Altzairuzko egitura, zertxekin eginiko eraikina, barne banaketak egurrezkoak.

Merkatuko eraikin nagusia

- 16 janari postu. Horietako 10 etxera eramateko janari postuak dira eta beste 6 aurrez prestatutako fruta postuak
- 4 nekazaritza eta abeltzaintza produktu postu
- 5 teknologia postu
- 6 etxetresna salmenta postuak
- 8 moda postu (arropa, oinetakoak, apaingarriak)
- 2 arropa konponketa postu bat.
- 2 paper-denda
- 3 garbiketa postu

11 Altzairuzko zertxekin egindako eraikina, estalkia txapa ondulatua.

- 5 fruta eta barazki postu

12 Bi solairuko eraikina, hormigoizko blokez egina eta estalkia onduline

- hostel bat.

13 Solairu bakarra, hormigoizko blokez egina eta ondulinezko estalkia.

- 3 fruta eta barazki postu.

14 Solairu bakarra, hormigoizko blokez egina eta ondulinezko estalkia.

- bi fruta postu finko

15 Solairu bakarra, bi eraikin, hormigoizko blokezkoak eta onduline estalkia.

- Hiltegia izan ziren bi eraikin, gaur egun abandonatuta

+ 15-20 janari postu jartzen dituzte errepede ertzean, altzairuzko egitura oso sinpleekin.

Horietatik 10-11 fruta eta barazki postuak dira eta beste 5-6 egunean portutik ekarritako arrain postuak


Landu nahi den
guneko eraikinak

Inguruko eraikinak,
gehienak etxebizitza
edo komertzio txikiak

Merkatuaren inguruko postuak.
Ez dira eraikin finkoak baina
urteak daramatzate gune berean.



50 49 48 47 46 45 44 43 42 41 40 39 38 37 36 35 m



AZALERA TOTALAK

GUZTIRA EREMUAREN AZALERA: 9700m²

HORIETATIK ERAIKIAK: 4900m²

1. AUTOBUS GELTOKI EREMUAREN AZALERA: 3500m²

Hiru gune eraiki ditu:

- Tiket eta jatetxeen eraikina (solairu bakarrekoa) 435m²
- Itxarongunea eta postuak 600m²
- Komertzio txikiak (solairu bakarrekoko lau eraikinetan banatuta) guztira 620m²

Gune irekia du sarrera zirkulazioa eta autobusen maniobratze eta geldiguneetarako 1850m² inguru dituena

Gune eraiki edo estalia guztira: 1655m²

Gune irekia guztira: 1850m²

2. MERKATUAREN EREMUAREN AZALERA: 3540m²

Eraikin nagusi bat dago (solairu bakarrekoa) 1730m²
Bigarren eraikin nagusia (solairu bakarrekoa) 400m²
10-12postu txiki, orokortuz 80m²

Gune eraiki edo estalia guztira: 2210m²

Gune irekia guztira: 1330m²

3. AUTOBUS GELTOKI ETA MERKATUAREN ERDIAN GERATZEN DEN KALEAK ESPALDIA ETA POSTUTXOEKIN BATERA DUEN AZALERA: 1400m²

- 14-16 postu daude kalearen bi aldeetan, guztira 120m²
- Errepideak gunerik estuenean 4.8m ditu eta zabalenean 8m. Orokorrean 6.5m zabal den ibilbidea da.

Gune eraiki edo estalia guztira: 120m²

Gune irekia guztira: 1280m²



MERKATU ETA AUTOBUS GERTOKIAREN ARTEKO ERLAZIOA, GIZARTEAREN EGUNEROKOTASUNEAN OINARRITUTA

San Carloseko hirigunearen mendebaldean kokatzen den zonalde hau hirirako **sarrera nagusia** da. Alde batetik Managuarekin hiria lotzen duen errepidea hemendik iristen delako eta bestetik portua ere bertan delako. Hori horrela izanik hor dago autobus geltokia. **Garraio modu honen garrantzia azpimarratu** beharra dago, bertan auto edota motor propioa duten pertsonak gutxiengo bat baitira.

Zerbitzu hau ez da soilik herrialdeko hiribuarekin komunikazioa mantentzeko erabiltzen, orokorrean eta biztanle gehienegun egunerokotasunean, **inguruko herrixkekin komunikatzeko erabiltzen da**. San Carlosen baitaude departamentuko zerbitzu nagusiak, administratibo, sozial zein ekonomikoan. Beraz, autobusen joan etorria jarraia da egun osoan zehar, goizean goizetik, seiak inguru, arratsaldeko zortzi edo bederatzia arte.

Hirira etortzeko arrazoien artean esan bezala administratibo edo legalak leudeke, inguruko bankuak, eta bulegoak hemen baitaude. Baina joan etorri gehien eragiten duen arrazoietakoa bat ikasleena da eta beste bat, **lanera datozen horiena**. Inguruetan nekazari eta abeltzain asko bizi direla ulertu behar da, baita merkatzia txikien banatzaile asko ere, etxetresnak, lanabesak, arropa edota ikas material ugari saltzen dituztenak. Horregatik, hirira datozen asko saltzera edota erostera datoz. Zenbait beraien herrietan landutako produktuak saltzera etortzen dira, fruta edota barazkiak gehienbat. Batzuk merkatuan edota bertatik gertu postu finko bat dute, beste hainbatek postu mugikorak jartzen dituzte. Hala ere esan behar da postu mugikor horiek astearen zati handi batean egoten direla bertan eta saltzaile berdinek daramatzatela urteetan. **Merkatua beraz inguruan zabaltzen joan da** postuen eta etxebizitzaren behe solairuak erabiliz denboraren bitartez, eta horrela hiriko kale komertziala sortu dela esan daiteke.

Autobus geltoki eta merkatuaren arteko erlazioa ez da beraz kasualitate utsa izan, bizi estilo bat irudikatzen du. **Hirira iritsi eta joaten direnek bezeroen zati handi bat suposatzen baitute**. Erosle partikularrez gain, kantidad handisamarretan erosi eta beraien herrietan saltzen dutenak daude. Horiek freskoak ez diren jakiak, ontziak, edozein motatako garbiketa produktuak, jantziak... saltzen dituzte.

Gizarteko gehiengoaren egoera ekonomikoa dela eta, **jendea egunean egunekoa erosten ohituta dago**. Hori horrela denez, komertziantek txikiak ere beraien merkantziak egun gutxiro erosten dituzte. Gainera esan bezala, **egunero beraien herrietatik datorren jende kopurua oso nabaria da**. Horrek **merkatu eta autobus gunea aste osoan zehar gune oso bizia izatea dakar**.

Gainera ulertu behar da kalean asko sozializatzen den gizartea dela San Carloseko orokorrean. Espazio publikoan harremantzen dira eta beraien etxebizitza pribatuetan ere, garrantzia gehien ematen dien atala aurrekaldeko portxea da, kalearekin kontaktu estuagoa edukitzea baimentzen dielako. Horregatik espazio publiko eroso, irisgarri, erabilgarri eta seguru bat izatea lehentasunezkoa dela deritzot.



HIGIENE BALDINTZAK

1. UR SISTEMA

Merkatuko, autobus geltokiko zein inguruko postuek ez dute bakoitzak bere saneamentua eta ur zerbitzua. Iturri pare bat daude guztien erabilerarako. Hori aldatuko balitz langileen lana erraztuko litzateke, ez lukete uraren bila joaten aritu beharko eta postuen garbiketa mantentzea erraztuko litzateke.

2. PRODUKTUEN KONTSERBAZIOA:

Oraingoz postuetan saltzen diren arrain, haragi eta esnekiak inongo **hozte sistemarik gabe** daude eta horrek osasunerako arazoak ekarri ditzake. Klima bero eta hezearen ondorioz eguzkitan egoten dira produktuak ordutan euliz edo intsektuz inguratuta askotan.

3. AIREZTAPEN ETA ARGIZTAPENA

Momentuz ingurunea nahiko iluna da eta **aireztapen naturala nahiko mugatuta** dago barnealdean eraikinaren arkitekturarengatik. Hori hobetzean, barneko giroa erosoago bihurtuko luke eta gainera giroa naturalki garbitzea erraztuko luke.

4. PROKUDTUEN ETA IBILGAILUEEN KEEN ARTEAN BANAKETA EGOKIA

Orain bertan, postu asko errepide ertzean daudenez, orduak pasatzen dituzten elikagai horiek **ibilgailuen kearen** alboan, ke horien sustantzia kimikoak xurgatuz.

5. KOMUN PUBLIKOAK ERANTSI AUTOBUS GELTOKI ZEIN MERKATUAN



SEGURTASUNA ETA EROSOTASUNA

1. AUTOBUS GELTOKIKO ITSARONGUNEA

Orain dituen dimentsioekin maiz jende pilaketak ematen dira eta itzalpean badago ere, eserleku gehiegi ez daude.

2. TIKET EROSKETA POSTUA

Zertxobait urrun dago autobusak hartzeko puntutik, eta eraikinaren atzekalde batean dago. **Nagusitasun gehiago** eduki beharko luke eta sarreratik gertuago egon, barru barruraino sartu gabe ere erosi ahal izateko. Gune hori bera egokia izan daiteke informazio puntu bat jartzeko.

3. AUTOBUS GELTOKIRA SARRERA

Momentu honetan autobus geltokirako sarrera, ibilgailuek eta oinezkoek leku beretik egiten dute. Gainera ibilgailuak postu komertzialen erdi erditik pasatzen dira beraien geltokira iriteko. Inguruan pertsona asko ibiltzen dira eta arriskutsua izan daiteke. Autobuses gain minibusak ere pasatzen direla komentatu. **Ibilgailuen sarrera oinezkoengandik ondo bereiziz**, segurtasun gehiago egongo litzateke.

4. ITZALA BERMATU

Orain bertan autobus geltokian itzalgune bat badago baina ez da nahikoa mugimendu gehieneko orduetan. Sortzen den gune orok kalearekin kontaktu estua izan behar duenez bertakoen bizimodua dela eta, guztiz beharrezkoak bihurtzen dira itzala eta aterpea, **klima gogor samarra** baita.



MERKATU ETA POSTUEN ANTOLAKETA

1. IRISGARRITASUNA

Kasu askotan saltzaileek ez daukate nahiko lekurik beraien produktuak erakusteko ezta modu erosoan gordetzeko ere. Horrek postuak barnealdean pasilloetaran eta kanpoaldean errepiderantz zabaltzea dakar, **erosleen ibilbidea maiz oztopatuz** eta kanpoaldeko kasuan segurtasuna mugatzera iritsiz. Edozein kasutan merkatuan orokorrean irisgarritasuna mugatua da. Oztopo guzti horiek merkantziak postuetaraino ekartzea ere zailtzen du.

2. POSTUAK HOBETU

Gainera kanpoaldean daudenek aurre egin behar diote euri zaparradei eta eguzki gogorrari. Horretarako beraien kabuz eginiko plastikozko estalkiak erabiltzen dituzte, erraz puskatzen direnak. Saltzaile horientzat asko erraztuko litzateke egoera postu finkoagoak balituzte. Merkatu itxia **modu osasungarriago batean** planteatu beharko litzateke eta produktuak modu seguruan izateko argindar eta **ur edangarria iritsarazi postu guztietara**. Horrez gain, herritarren kaleranzko irekitze filosofia jarraituz, merkatu nagusia bera kalearekin kontaktu gehiagoan egotea nahiko nuke, aldi berean inguruan dauden postu horiek berrantolatu eta guztientzat **puntu egonkor erosoagoak** sortuz. Bestalde kontuan izan behar da, komertzio txikiek inguruan duten garrantzia, eta hazkunde nabaria izan duela sektore honek azken urteetan, beraz horientzako lekua ere aurreikusi beharko litzateke.



HAURTZAINDEGIA

Merkatu eta inguruko **postu asko, familia askoren ekonomiaren oinarri** dira. Daramaten ordutegia bakoitzaren esku dago baina egia da oso zabalak direla orokorrean, goizean goizetik hasi eta arratsaldean oso aurrera joan arte. Hori bizitza familiarrekin eta **etxeko txikienean zaintzarekin moldatzea zaila da**. Egia da bertako kultura dela eta, oso txikitatik oso autonomoak izaten direla, baina horrek ez du kentzen gurasoek umeei duten erantzukizunak betetzeko beharra.

Horregatik, maiz txikiak merkatuko **postuetan egoten dira beraien gurasoekin**. Orokorrean amarekin egoten dira, gizartearen egitura dela eta, hauek baitara kasu gehienetan oraindik umeen kargu egiten direnak. Nahiz eta rol horretan berdintasuneranzko bidean doazen. Beraz txikiak ordu luzeak ematen dizute merkatu eta autobus geltokian barrena.

Hori horrela izanik, bertan haurtzaindegi bat egitea egokia litzatekela iruditzen zait. **Guraso askoren egunerokotasuna eta batez ere ama askorena zertxobait errazago izango litzateke**, lan egiten duten bitartean beraien seme-alabak ongi zaintuta, seguru eta denbora aprobetxatzen ari direla jakinda. Gainera, posible da zerbitzu hori egongo balitz emakume gehiagok planteatzea lan mota horretan hastea, autonomia gehiago lortzeko aukera izanik.

Zerbitzua goizeko seiretan hasiko litzateke merkatua irekitzearekin batera. Batetik, goiza edo eguna lanean pasa behar dutenen seme alaba txikienez eta baita iada eskolan dabilzan baina etxean bakarrik egoteko gazteegi direnez, sartu aurretik merkatuan egoten diren horientzat ere. Zerbitzuak merkatua itxi arte jarraitu behar luke, saltzaile bakoitzaren beharretara ongi moldatzeko. Jangela eta sukaldea ere eduki behar litzateke, zerbitzu horren beharra ere aurreikusiko balitz. Zazpi edo zortzi haurrero begirale bat egon behar luke, beraz 40 haurren kargu egin ahal izateko lau langile behar lirateke.



FORMAZIO GUNE MULTIDISZIPLINARRA

Orainarte Nikaraguan emakumeek, etxeak dakarren guztia eraman dute beregain, seme alabak, adineko gurasoak, etxea eta guztiak aurrera ateratzeko erantzukizun ekonomikoa. Guztia inongo errekonozimendurik gabe eta gizarte antolaketa matxista baten zapalkuntza jasoz. **Emakume indartsuak dira, langileak eta ausartak**, baina duten lan karga dela eta, ikasketak gazterik uzten dituzte maiz, bizitza pertsonal zein profesionalean aurrera egitea zailtzen diena. Egoera pixkanaka aurrera doa eta badatoz aldaketak, baina asko dago egiteko oraindik. **Emakumearen egoera hobetzeko moduetako bat bere formakuntza indartzea da.**

Formakuntzaren garrantziaren kontzientzia zabaltzen ari da, eta inizatiba indibidualak sortu dira azken urteetan. Badira beraien etxeetan herriko emakumeei jostintza erakusten dienik, baina margoketa tradizionala irakasten ari denik ere. Gizarte komunitariaren sentimentua, partehartzea eta kolaborazioa oso barneratuta dituzte, eta horretan adibideak dira aurretik esandakoak.

Horregatik **ekintza horiek bultzatu, garatu eta praktikan errazago jartzeko baliabide gehiago egon behar lirateke**. Beraz, erabilera anitzetarako gune bat sortzea aukera egokia dela deritzot. Emakume hauen egoerak aurrera egin dezan, **gai oso ezberdinetako tailerrak edota ekintzak egin daitezke, alor sozial zein ekonomikora begira**. Genero indarkeriaren kontzientziazioan oinarrituak edo beraien eskubideak hobeto ezagutzeko balio dezketenak esaterako. Gainera salmentan hobeto moldatzeko oinarritzko administrazio formakuntza jaso dezakete, baita egunerokotasunean moldatu behar izan dezaketen edozein dokumentazio (arginda eta ur empresako fakturak esaterako) hobeto ulertu eta kudeatzeko ere. Lanbide berriak ere ikas ditzakete, zatapa konponketa, tresneria mantenua, jostintza, komertzio txikien kudeaketa, eskulangintza ezberdinak, informatika... Pentsatu dezakegun aldi berean gehienez lau ekintza egongo direla martxan eta bakoitzean 10-as partehartzaile, beraz aldi berean gehienez 45 erabiltzaile litzateke guneak.



Gune honen kudeaketa erakunde batek eraman behar luke. Orain bertan badago merkatuaren antolkuntza eta zaintza daraman komite bat, eta agian tade horren eskutik sortu liteke formakuntza gune honen administrazio eta antolakuntza eraman dezakeen talde bat. Guneak egunaren zati ezberdinetan erabilera desberdinak izan ditzake, baita garaia araberak ere, beraz, erraz moldagarria izan behar du, azpigu-netan banagarria izateko.



Lortu nahi izan den puntu garrantzitsuenetako bat, mendebaldeko kaleak bbehekaldearekin zuen lotura hobetzea izan da.

Horretarako aurrerago ikusiko den bezala bideak hobetzeaz edo sortzeaz gain, egin nahi izan dena da autobus geltokia denarekin gainean eraikitzea goikaldearekin lotura erraztu eta hor plaza bat sortu ahal izateko. Gune horretan bela ez oso landu xamarra besterik ez zegoen, eta oroietuaren herri osoarentzat erabilgarri litzatekeen espazio lasai bat lortzen da errepideetatik urrun. Eta mendebaldeko kalera ematen duten etxeek jardintxoak izango dituzte, atzekaldea hobetuz.

Beste helburu garrantzitsu bat, errepide nagusiaren alboak libreago uztea da seguruago izan dadin, erosoago



ZIRKULAZIOA


Bide nagusia mantenduko da. Izan ere, hirirako sarrera nagusia da. Lurrez egin daiteken edozein konexio hemendik pasatzen da.

Horrez gain, goiko kalearekin erlazioa estutu nahi izan da ibilbide nagusiarekiko perpendikularrean joango diren bi lotura eginez.

Mendebaldeko kalearekin ere lotura osatu nahi izan da sortuko den plazaraino bidea eginez.



Goiko plaza sortzean autobusa karga hormararenn albotik pasa ahal izan da eta horrela tunel moduko batetik joaten da zati handi batean oinezkoengandik urrunduz



Oinezkoen bidea

Ibilgailuen bidea


■ Merkatua plaza txikien inguruan antolatu nahi izan da, kale nagusiarekin erlazio estuan, noski. Zeharkatzeko gune bat soilik ez izateko. Erosketak egitera joateaz gain, bertan denbora gustura pasa ahal izateko.




■ Autobusen bidea oinezkoen bidetik ahalik eta gehien alendu dugu eta kalearekin kontaktuan geratuko direnak jantetxeak izango dira. Hauek lehen autobus geltokiaren barruan zeudela esan daiteke eta proiektuan kalearekin zuzeneko kontaktuan geratuko lirake.



■ Jantetxeen aurreko gunearen jarraipena da eta kale formato honetan autobusek pasa behar badute ere, oinezkoek dute prioritatea.




■ Goiko plaza berria auto gabeko zona izango da non aisialdirako erabilerak ezarriko diren. Txikientzat jolastoki bat egongo da eta baita helduagoentzat kirola egiteko gune bat. Goiko plaza berria auto gabeko zona izango da non aisialdirako erabilerak ezarriko diren. Txikientzat jolastoki bat egongo da eta baita helduagoentzat kirola egiteko gune bat.




- Goiko plaza
- Kale bigarrenkoia
- Kale nagusia
- Merkatuko plazak

Lehen etxeen atzekaldeak beste eraikin batzuekin batera zuten barne patio batera ematen zuten, baina orain atzeko aldea zenak kalera ematen du. Beraz, sarrera bat eransteko eta bat ezartzeko aukera ematen duen estruktura sortu da. Honi esker, kale izaera markatuagoa lortzen da. Eta noski, negozioentzat erabilgarria da bi aldeetara ematea.



Etxe hauek lehen atzekaldean behelaze batera emten zuten, oso landua ez zena eta proiektuan gune horretan plaza berri bat kokatzea proposatzen da. Gainera, etxebizitza horiek jardina izango lukete plazaren kotatik zertxobait igota, karga horma baten bidez. Honek estalpe bat sortuko duen egitura bat eutsiko luke bi aldeetara estalpea eskaintzen duena

Batetik jardinei zatitxo estali bat emango lieke arropa eskegi, barbakoak egin edota besterik gabe itzalpean lasai asko egoteko. Beste aldetik plazaren ertzean estalpe bat sortuko



Aurretik esan bezala birkolokatutako eraikinak, etxebizitzak eta negozioak dituztenak, oinezkoarekin kontaktu estuagoan geratzen dira eta autobus geltokiaren soinetatik babestuago.

Etxebizitza hauek lehen bezala mantentzen dute kaleranzko lortura baina orain, mendebaldeko kalearekin lotura hobetu denez, kokapen erosoagoa dute.

3 eraikin

14 eraikin

6 eraikin

5 eraikin

■ Merkatua ekialdean kokatu da, plazatxoan inguruan, oinezkoen erosotasuna bermatzeko. Helburu nagusia kalerantz ahalik eta irikien egotea izan da.




■ Autobus geltokia bere hasierako kokapenean mantendu da. Hala ere, ibilbide nagusitik urrundu da eta oinezkoen prioritatea mantentzen saiatu gara eremu guztian.



■ Birkolokatutako eraikinak hurrundu egin dira eta zonalde lasaigo batera eraman dira zaratatik urrun.



■ Haurtzaindegia eta formazio zentroa zonalde lasaienean kokatuko dira, estazio gainean ezarriz. Goitik zein betik komunikazio erraza bermatu nahi da oinezkoen erosotasunerako.



- Merkatua
- Autobus geltokia
- Birkolokatutako negoziak
- Haurtzaindegi eta Formazio zentroa

JATETXEAK

Jatexek kalearekiko erlazio estuagoarekin kokatu dira, abenidarantz terrazak jarritz

- 8 jatetxe, bakoitza 25m²



AUTOBUS GELTOKIA

Gune berean mantendu da, baina karga hormatik gertuago oinezkoa babestuz.

- 4 autobusentzako geltokia



SALMENTA POSTUAK

Guztitarako produktuak saltzen dira, bidaiari batenak egokiak liratekeenak, litxakeriak eta freskagarriak, aldizkariak, edota kuxin eta txankletak


- 8 postutxo, bakoitzak 10m²



TIKET SALMENTA ETA INFORMAZIO GUNEA

Autobus geltokirantz sarrera bat suposatzen duen gunean kokatua dago eta mendebalde eta ekialdea lotzen dituen bidea eratzen da.

- 30m²



- Jatetxeak
- Produktu anitzeko postuak: litxakeriak, aldizkariak, ...
- Komunikazio nukleoa
- Biltegia
- Komunak
- Tiket salmenta eta informazio gunea
- Autobus geldiunea

SORTU NAHIRIKO GUNE BERRIEN AZALERAK: 1275m²

HAURTZAINDEGIA

Guneak dituen erabilerak eta azalerak:

- Siesta gela, goizean goizerako eta arratsalderako txikientzat, 12 haurrentzat, 30m²
- Komun eta aldagelak, 27m²
- Biltegia 20m²
- Sarrera + Administrazio bulegoa, 85m²
- Jolasgunea 60m²
- Sukaldea 105m²
- Bi terraza bat 85m²-koa eta bestea 40m²-koa

Gune ireki totala: 125m²

Gune itxi totala: 327m²

FORMAZIO GUNEA

Guneak dituen erabilerak eta azalerak:

- Administrazio gunea 40m²
- Komunak 32m²
- Ikasgelak, 3 ikasgela/taller handi= 90m² bat eta 100m² bi
- Terraza 60m²

Gune itxia guztira: 362m²


Gune irekia guztira: 60m²

BIEK AMANKOMUNEAN IZANGO DUTEN EREMUA

Hautzaindegi eta formazio guneen artean biek erabiliko duten eremu bat egongo da eta panel mugikor bidez erraz banatu ahalko dira eremu ezberdinak sortzeko. Orokorrean zatietako bat hautzaindegiko jangela eta haurren jolasgunea izango litzateke eta beste zati bat formazio guneke egongune. Baina esan bezala, espazio amankomun osoa erabil daiteke bilkura handiak antolatzen direnean. Sukaldea bera ere, formazio guneak erabiltzea aukera bat izan daiteke dimentsio zabal eta erosoak baititu jarduteko.

145m² + 145 m²+120m²

Aldi berean, goiko plazara irteera dute. Honako hau oso leku lasaia da. Bertan ekintza ugari egin daitezke. Hala nola, umeentzako jolasgune izan daiteke edota formazio guneke behar izanez gero bertan baratz bat jartzeko gune bat.



- Aulak
- Bulegoa
- Komunak
- Harrera-gela
- Biltegia
- Sukaldea
- Komunak
- Siesta gela
- Biltegia
- Sarrera + harrera-gela
- Jolas gunea
- Erabilera anitzeko gunea

MERKATUA ; 1900m²

Abenida nagusiarekin kontaktu estuagoa duela ezarriko da. Bertan salduko diren produktuen arabera banaturik egongo da osasungarritasuna bermatzeko.

Beheko zatian salmentan dauden elikagaiak kokatuko dira:

Alde batetik, fruta eta barazki merkatua eta bestetik haragi, arrain eta esnekin merkatua izango dira. Azken honetan, hozkailu indibidualak izango dituzte.

- 12 haragi, arrain, esneki postu, bakoitza 15m²

- 19 fruta eta barazki postu, bakoitza 11m²



Horrez gain, prestatutako janaria saltzeko gune bat sortuko da. Hauek sukaldetxo bat izango dute, prestakuntza eremu bat eta salementarako lehioak izango dituzte. Bere inguruan zenbait mahai jarriko dira. Honela, behin produktua erositara bertan eserita jan ahalko da.

- 11 postu, bakoitza 15m²,



Azkenik, zonaldean honelako produktuak duen arrakasta ikusirik, fruta prestatua saltzen dutenentzat gune bat ezarriko da. Izan ere, badira zuku zein fruta zatikatuak saltzen dituztenak. Gainera, fruta erositakoan jardinetan lasai eserita jan ahal izango da.








- 13 postu bakoitza 9m²




Goiko zatian elikagaiak ez diren beste motatako produktuak kokatuko dira: Arropa, burdindegia, jostetarako produktuak, paper denda, ...

- 38 postu, bakoitzak 11-14m²

Horrez gain, hainbat egongune ezarriko dira pantanura eta kalerako bistak izango dituztenak.

-  Elikadura ez diren produktuen merkatua 38 postu (etxe tresneria, osagarriak, paper denda, garbiketa produktuak...)
-  Egongune lasaiak kalera zein pantanora begira
-  Haragi, arrain eta esnekien 12 postuak (guztiak hozgailuekin hornituta)
-  Komun publikoak
-  Fruta eta barazki postuak
-  Sukaldatutako produktuen 11 postua(sukalde indibiduala dute)
-  Postuetan lan egiten dutenentzako komunak eta egongunea



BIRKOKATUTAKO NEGOZIOAK: 1530m²

Proiektuan, bi arropa denda, ileapaindegi bat eta zapata denda bat lekuz aldatu dira. Honako hauek gainean etxebizitzak zituzten eta egitura hori mantendu da. Alde batetik bertako bizi estiloa mantetzarren eta baita erabilera aniztasunak herriguneak bizi mantentzen dituelako ere. Baina birkokatzean kalearen beste aldera eraman ditugu gunea lasaiagoa delako autobus geltokitik zertxobait hurrunago. Hala ere, ibilbide nagusiarekin, eta beraz berezoeekin, kontaktu estua izaten jarraitzen dute. Negozio haiek goiko solairuan negozioko jabea beraren etxebizitza zuten, beraz hori mantendu da, negozio bakoitzak goiko solairuan etxebizitza du.

- Negozio bakoitza 70m²
- Etxebizitza bakoitza 80m²



Ostatua ere birkokatua izan den eraikin bat da eta prozesuan logelak irabaziko lituzke eta behe solairuan zituen jantoki txikia jatetxe bihurtzera arte hazten da.

- Sarrera eta jatetxea 160m²
- 7 logela bikoitz estandar bainugelarekin 20-24m²
- 2 logela bikoitz handiak bainugelarekin 37m²
- 4 logela bikoitz bainugela amankomunarekin 6m²




Tailer mekanikoan produktu kimikoen isurketak izaten dira eta honek gasolinarekin batera su harriskua igoten du. Horregatik, lekuz aldatuko da zonaldetik separatuagoa dagoen eraikin batera segurtasun-maila handitzeko. Beti ere kalearekiko duen erlazioa mantenduz. Beraz, suteak ekiditeko gainontzeko eraikinen eraikuntza zertxobait desberdina jarrituko du.

- tailerra eta bulegotxoak 130m² eta 37m²



Orokorrean negozio guz iek birkolokatzean metro karratu kopurua irabazi dute eta kokapen erosoagoa.

Eraikin honen iparraldean merkatuaren jarraipena diren postuak daude, fruta iada prestatua saltzeko gunea izan daiteke, fruta zatitua, fruta entsaladak, zukuak... Alboan bada egongunetxo bat bertan erositakoa lasai eserita jan ahal izateko. Postu horietan bada bainugela bat bertan lan egiten dutenentzat ere.



- Hiru negozio behe solairuan + etxebizitza goi solairuan (arropa denda, zapata denda, estetika zentroa)
- Tailer mekanikoa
- Fruta postuak (13 postu)
- Hostalala + behe solairuan jatetxea

BANBUAK ERAIKUNTZA-MATERIAL GISA DITUEN ABANTAILAK

- Erresistenteak dira, haien pisu baxuari dagokionez
- Erraz eta azkar eraikitzen da
- Ohiko tresnak erabil daitezke, ez du ekipo berezirik behar
- Ez da apurtzen bihurtzean. Egitura hutsa eta zurruna du
- Gutxieneko hondakinak ditu eta berriztagarria da
- Eremu sismikoetan oso egonkorak
- Gainazal erakargarria du, laua, gogorra eta garbia
- Co2-a finkatzeko abiadura
- Energia-baliabideak ahalik eta gutxien erabiltzea prozesatzean, egurrarekin, metalarekin edo adreiluarekin alderatuta
- Eraikuntza-elementu merkea eta ekonomikoa da
- Naturguneak berreskuratzea, biodibertsitatea sustatzeko.
- Laborantza-eremuetan enplegu-iturri berriak sortzea.

BANBUAREN ERRESISTENTZIA

Banbuari eraikuntza-material bezala erabil ahal izateko gogortze prozesu bat egin beharra dago. Gogortu ezean banbuan 2 edo 3 urte iraungo lituzke. Horrez gain, eraikitze momentuan, banbua euskarri gisa erabiltzen bada, tutuek diametro handiagoa izan beharko dute ahalik eta erresistentzia handiena emateko.

NOLA GOGORTU BANBUA?

- Banbu-kanaberak ur eta borotan sartu
- Makilak ke-gelan jarri
- Murgiltze-tratamendua aplikatu. Banbuzko kanaberan zuloak egiten. Ondoren, uretan sartu izerdia kentzeko
- Boucherie metodoa. Sartu azido borikoa eta boraxa presioan banbu barruan izerdia landua kentzeko

KLIMAREKIKO BANBUA MATERIAL EGOKIA

Banbua klima bero eta hezea dagoen lekuetarako eraikuntza-material aparta da. Biltegitratze termiko txikiko materiala da eta aireztapen gurutzatua ahalbidetzen duten diseinuak ahalbidetzen ditu. Banbuzko hormak ezin dira hermetikoki eraikin beraz, aireztapen gurutzatua berez gertatzen da, eta giro atsegina eta hezetasunik gabea ematen du.

MATERIAL JASANGARRIA

Banbua material ekologiko bat da, eraikuntza jasangarrirako irtenbide bideragarri-netako bat. Bere ugaltze-ahalmen handiagatik eta erresistentzia handiagatik. Arkitekturarako ingurumen-abantaila ugari ditu; banbu-hektarea bakoitzak bederatzi tona CO2 xurga ditzake, eta bederatzi etxebizitza iraunkor eta ekologiko eraikitze egitura-material nahikoa lor dezake.



FENOMENO NATURALEKIKO ERRESISTENTZIA

Malgutasunari eta tentsioarekiko erresistentzia handiari esker, banbuzko hormak erresistentzia handia du sismoekiko, eta, kolapsatuz gero, pisu txikikoak kalte gutxiago eragiten du; berreraikitzea azkarra eta erraza da.

Banbuak sismoekiko erresistentzia du, fenomeno natural horien indar horizontalak zuzenean proportzionalak baitira eraikuntzaren masarekiko edo pisuarekiko eta altuerarekiko. Horrek esan nahi du zenbat eta pisu eta altuera handiagoa izan, orduan eta azelerazio handiagoa eta kalte handiagoa dagoela.

BANBUARI AURKA EGITEN DIOTEN AGENTEAK

- Suak kontsumitzen ditu
- Onddoek eta intsektuek egitura erasotzen dute, banbua ahuldu eta suntsitzen dute
- Eguzki-argiaren izpi ultramoreek kolorea galtzen dute, eta banbuak aurreko agenteen aurrean duen suszeptibilitatea handitzen dute.
- Diseinu txarra eta eraikuntza txarra berehala suntsitzen dira

MAURICIO CARDENAS LAVERDE

Bere sortzailea Mauricio Cardenas Laverde da. 2004an, Milanen lanean zegoela denbora librean banbua ikertzeko eta loturetarako teknikak garatzeko erabili zuen.

Berak sortutako sistema honi esker, kanaberak perno bidez elkartzea saihesten da, horiek kanaberak ahultzen dituztelako. Gainera, zementuzko txertoak ere ekiditzen dira.

Sistema hone bitartez banbu kanaberak elkar daitezke. Metalezko pieza bat estutzen duen neoprenezko eraztun batean oinarrituriko lotura-sistema da. Teknika honen bidez, egitura-piezak alda daitezke noizbait hondatuko balira.

Aluminiozko konexio arinak eta erraz mihizatzen direnak erabiltzen dira. Banbu kanaberak eta benetako altzairua konbinatzen dira eraikuntza-sistema industrializatu bat sortzeko.

